

# 5. Metodologiaren oinarriak

## **Hurrekin parte hartzea sustatzerakoan kontuan izan beharreko metodologiaren bost oinarri proposatzen dira jarraian**

### *1. Ikas prozesu dialogikoa*

Ikaskuntza dialogikoa berdintasunezko elkarrizketaren emaitza da. Beste era batera esanda, elkarrizketa baten ondorioa da, non pertsona ezberdinek botere harremanik gabeko espazio batean elkar entzuten duten, elkar errekonozitzen diren. Ikaskuntza dialogikoa hezkuntza-eremuko edozein egoeratan gerta daiteke eta gizarte-eraldaketarako potentzial garrantzitsua dakar.

Ikas prozesu dialogiko hau, prozesu espiral bat izatea proposatzen da: praktikatik sortu, gogoeta egin eta praktikara itzuli modu ordenatu batean.

Hurrekin gaudenean behaketa eta entzuketaren bidez, haurren kezka, ideia, ezinegon, proposamenak... izan daitezkeenak jasoko ditugu. Hauek gure lanerako hari muturrak izango dira. Hari mutur hauek, hurrek esaten duten moduan jasotzea izango da erronka, euren hitzetan. Helduon intrepertazioa gehitu gabe.

Hari mutur hauek, hurrekin gaudenean agertzen diren ideiak izango lirateke. Hitzaren bidez edota komunikazioa ez berbalaren bidez hurrek benetan esan nahi diguten hori. Heldu batek inoiz esango ez lukeen hori bilatuko dugu. Francesco Tonuccik "Lo absurdo" edo "La tonteria" moduan izendatu izan duen hori. Hurrek benetan esateko daukaten hori, benetan pentsatzen dutena, erantzun estereotipatuak gainditzen dituen hori izango da bilatzen dugun hari muturra.

Hari mutur hauek erregistratu egingo ditugu, ahalik eta modurik objetiboenean (hurrek esan duten moduan, euren hitzekin). Horretarako teknika ezberdinak erabili ditzakegu: grabazioak (bideo zein audioak), apunteen libreta ("cuaderno de campo"

modukoa), argazkiak... Bertatik bertara eginiko jasoketa guztia ordenatzeko "Hari muturren erregistro orria" erabiliko dugu.

Ondoren, erregistro horren hausnarketa gauzatuko dugu, hurrekin egon garen hezitzaileak eta 3. belarria deituko diogun lantaldeko hirugarren hezitzailearekin. Erregistraturiko hari mutur hauetatik abiatuz, gure haurren parte hartze kanal iraunkorraren plangintza gauzatzeko. Zein hari muturretik tirako dugun erabaki eta nola itzuliko dugun parte hartze kanalera erabakiz. Modu honetan planifikatuko dugu hurrekin izango dugun hurrengo parte hartze saioa.

Hurrengo saioan hari mutur hori berriro hurrekin landu eta ikusi ea hortik tiraka ideia kolektibo bat sortzen den ala ez. Ideia kolektibo bat bada, bide eman horri eraldaketa publikorako proiektu bat bihurtzeko. Hurrekin burutuko ditugun hurrengo saioak proiektu hau eurekin sortzera bideratuz. Aukeratu dugun hari muturra gure haur taldearen behar kolektibo bat ez bada, beste hari mutur batekin saiatuko ginatke hurrengo saioan. Modu metodologiko honetan aritzeak, aurrena hurrek esateko daukatena entzun/erregistratu eta gero planifikatzea eskatzen du. Eta ez alderantziz. Helduak ohituta gaude, lehenengo plangintza egin (askotan epe luzerako plangintzak), eta ondoren, hurrengandik jasotzen duguna hor txertatzen saiatzen gara. Orden hau iraultzeak, haurren beharretatik sortutako eta euren beharretara egokitutako saioz saioko plangintzak egitera behartuko gaituelarik.

Hari muturren deboluzioa ondo planifikatzea garrantzitsua izango da. Hurrei hari muturrak itzultzeak, deboluzio hau egiteak, prozesuari zentzua emango dio. Saio bat hurrengoarekin josiko du hari muturrak eta beronen deboluzioak. Deboluzio horietan aurreratzen denak, hari mutur horri tiraka ateratzen diren ideiak, kezak, beharrak... hari mutur horren mapa kontzeptuala osatzeko erabiliko ditugu. Poliki-poliki, saioz-saio, dinamika, jolas ezberdinen bidez, hari mutur hori kolektibizatzeke eta eraldaketa publikorako proiektu bilakatzen joateko.

Hurrekin parte hartze saioetan egongo diren hezitzaileen funtziorik garrantzitsuen behatzea eta entzutea izango dira. Saio horietan hurrekin gertatzen denetik zer behatu, zertan fijatu behar garen jakiteko beharketa adierazleena fitxa erabiliko dugu. Saio bakoitzaren ondoren, behaketa fitxa hau eta hari muturren erregistro orria betetzeko denbora hartuko dute hezitzaileek. Ondoren, lan taldeko hirugarren hezitzailearekin egingo dugun hausnarketaren abiapuntua, bi dokumentu hauetan jasotakoa izango da.

Hurrei entzutea ez da erraza. Haurren ahotsarekin errespetuzko entzuketa bat egitea, gure intepretazioa gehitu gabe oso zaila da. Honetan trebatu behar dira hezitzaileak. Ahalik eta behaketa eta entzuketa objektiboena egiten ikasteko. Honetarako, ordea, helduok asko desikasi eta desboteretu beharko gara.

Hezitzaile lan taldean, hurrekin saioetan dauden bi hezitzaileez gain, hirugarren hezitzaile bat egotea garrantzitsua izango da, hortik dator hirugarren belarriaren garrantzia. Saioaren erregistro orrian jaso duguna, hirugarren figura honekin batera hausnartuko genuke. Zein hari muturretik tiratuko dugun elkarrekin erabaki eta deboluzioaren plangintza ere elkarrekin erabakiko genuke. Hirugarren belarriaren figura hau garrantzitsua izan daiteke: hurrekin saioan ez egon izanak, kanpo begirada bat gehituko dio hausnarketari. Saioan gertatu denaz kutsatuta ez dagoen begirada bat. Tokian toki erabakiko da hirugarren belarri hau zein figura edo perfil izan daitekeen baina, Oinheritik interesgarria iruditzen zaigu pertsona hau udal teknikaria izatea. HPKlan gertatzen denaren eta udalaren arteko zubi lana asko erraztuko lukeelako.

## *2. Sormena eta eraldaketa politikoa*

Hurrekez dute helduen moduan parte hartzen. Hurrek munduan egoteko, munduari zentzua emateko, mundua ulertzeko beste modu bat daukate. Beraz, ezin dugu haurren parte hartzea

helduon moduetan egin. Haurren moduetan egitea lortu behar dugu. Gu helduok gerturatuz euren mundura eta ez alderantziz.

Hurrei benetan entzuteko, mundua ikusteko duten erara hurbildu behar gara. Horretarako, ezinbestekoak izango dira sormena, fantasia eta helduarentzat zentzugabea dena, errealitatea desnaturalizatzen lagunduko digutelako.

Jolasa, ludikotasuna, sormena, imajinazioa, metaforak, magia, literatura, ipuinak, objektu fantastikoak, narrazioak, edabe magikoak, joku dramatikoak, antzerkiak... erabiliko ditugu hurrekin lanketa parte hartzaileak egiteko.

Honek guztiak sormen ariketa konstante bat eskatuko digula jakitun, biltoki bat osatuko dugu. HPKletan sortzen den material hori guztia jaso eta elkartrukatzeke.

Galdetzen dugun moduak, erantzuna baldintzatzen du. Galdera irekiak, galdetu nahi duguna zuzenean galdetu gabe, ahoz ez den bestelako komunikazio kanalak erabiliz galdetzeak, erantzun berezi/desberdin horietara iristea ahalbideratuko digu.

Sormena joko disruptibo gisa erabiliko dugu errealitatea desitxuratzeko. Existitzen ez den hori imajinatzeraz gonbidatu behar ditugu haurrak. Helduekin ausartzen ez garen galderak egitera ausartu behar gara hurrekin, helduok imajinatzeraz animatzen ez garen gauzak imajinatzeraz animatu behar ditugu haurrak. Hortik bakarrik lortuko ditugulako erantzun, ideia ezberdinak. Gero politika publikoetan eraldaketa bat sustatu ahal izango dutenak.

### *3. Haurrak espazio publikoan*

HPKletan ezin gara mugatu haurren hitza entzutera. Hurrek prozesuan parte hartu behar dute, gauza ez da ideiak ematea eta itxarotea helduok hori kudeatu arte.

Lanketaren arabera, denboraren kudeaketa ez da erraza izango. Batez ere, emaitza lortzean jartzen badugu begirada. Emaitza horretatik, hurrekin egin dezakeguna identifikatu behar dugu, haurrak prozesuan inplikatzeko.

Haurren parte hartze kanal iraunkor honetan gertatzen denak ezin du lau pareten artean bakarrik gertatu. Herrian, espazio publikoan ikusgarri izatearen garrantzia. Espazio publikoan haurren presentzia berreskuratzeko, herritarrek egitasmoaren berri izan dezaten, kaleak hartzearen garrantzia sinbolikoa kontuan izango dugu. Ikusgarritasun hau sustatzea, haurrak subjektu politiko gisa orainaldian ikusten hasteko oso baliagarria izan daiteke. Lurraldean sustraiak dituen demokraziaren eta partaidetzaren ideia: haurren parte hartzea ikusgarri egin eta agendan jartzeko.

Gure proiektuak helburu politikoa izan behar du. Haurrak ahaldundu nahi ditugu, kolektibo moduan beraien ideiak defenda ditzaten eta autoantolatzen/autokudeatzen ikas dezaten.

### *4. Talde izaera, kolektibotasuna*

Gutasun baten eraikuntza ezinbestekoa izango da. Talde izaera eta pertenezia sentimendua sortzea haurrengan. Binkuloak sortzea haurren eta haur/helduaren artean.

Hurrei, jendarteko talde, kolektibo bat direnaren kontzientzia pizteko lehen pausoa izango da.

Horretarako, HPKlak izen bat, marka bat, logo bat, espazio propio bat... izatea klabea izan daiteke. Zerbaiten parte garena sentiarazten gaituen zerbait eraiki behar dugu hurrekin. Nitasunetik gutasunera jauzi egiten lagunduko digun elementuak sortu beharko ditugu.



### *5. Etenik gabeko kontaketa*

Haurren parte hartze kanala iraunkorra izango bada, bertan geratzen denaren kontakizunak etenik gabea izan beharko du. HPKlerra gerturatzen den haur berriak jakin beharko du bertan aurrez gertatutakoa. Kontakizun historikoa egitea garrantzitsua izango da, haurra konturatzeko aurrez martxan zegoen zerbaitezara gehitzen ari dela.

Gure HPKlean landutakoei erreferentzia egiten dieten argazkiak, objektuak... espazioan, maleta batean batzen jaoteak lagun diezaguke, kontakizun honi laguntzeko.

Honetan asko lagunduko luke HPKleko hezitzaileak denboran iraunkorrak izateak.

*Behaketa: heldu  
bidelagunaren  
lan tresna  
garrantzitsuen*

# 6.